

## 1.IDEIA

### **AUKERAKETA PROZESUA**

#### ANIMALIEN TXIP-A

Aukeratutako ideia, animalien txip-a da. Txip hau animaliei jarriko zaie eta norbaitek animaliei tratu txarra ematen badiu, txip horrek nabaritu eta poliziarri jakinaraziko dio.

Txip honek sentso batzuk ditu eta horiei esker animalia urduritasuna edo itsumustuko mugimenduak neurtzen ditu; hori nabarituz gero, mezu bat bidaliko dio poliziarri eta horrela polizia egiaztatzen joango da ea dena ondo dagoen edo arazoren bat gertatu den jakiteko.

#### NEGOZIO IDEIEN BALORAZIOA

Bagenituen aukera guztiekin taula hau bete dugu irizpide batzuk jarraituz eta puntuazio bat eman diogu ideia bakoitzari. Hauetatik, puntuazio altuena daukaten bi ideiak hartu ditugu.

IRIZPIDEAK					
IDEIA	BERRITZAILEA	APLIKATZEKO ERRAZA	DIRUA IRABAZIKO DUGU?	ILUSIOA EGITEN DIZU	PUNTUAZIO TOTALA
	1TIK-5RA	1TIK-5RA	1TIK-5RA	1TIK-5RA	
1. Erantzun taktikak	4	5	4	3	16
2. Hortz-eskuila bikoitza	3	5	4	3	15
3. Arropa birziklatzea eta beherapena izatea	2	5	3	4	14
4. Animalien txip-a	5	5	4	5	19
5. Umeak ulertzeko laguntza	2	4	3	3	12
6. Garbigailu heterogeneoa	3	5	3	2	13
7. GPS betaurrekoak	4	5	3	3	15

## **NEGOZIO IDEIEN BIDERAGARRITASUNA**

Aurreko bi aukera hoberenak hartu ditugu eta galdetegi hau erantzun dugu, ondoren ideia hobereana aukeratzeko.

### **ERANTZUN TAKTILAK:**

GALDERA SORTA	EBALUAKETA				
	1TIK 5RA				
	1.	2.	3.	4.	5.
1.- Gure produktu/zerbitzuak prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?				X	
2.- Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?			X		
3.- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?			X		
4.- Merkatuan bere beharra al dago?			X		
5.- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu?				X	
6.- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?		X			
7.- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?				X	
8.- Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?			X		
9.- Lan gogor egiteko prest al gaude?					X
PUNTUAZIO TOTALA	<b>31</b>				

## **ANIMALIEN TXIP-A:**

<b>GALDERA SORTA</b>	<b>EBALUAKETA</b>				
	<b>1TIK 5RA</b>				
	<b>1.</b>	<b>2.</b>	<b>3.</b>	<b>4.</b>	<b>5.</b>
1.- Gure produktu/zerbitzuak prezio erreal baten truke bezeroak izango lituzke?				X	
2.- Onargarria den gastu bati aurre egin diezaiokegu?				X	
3.- Ezaugarri desberdintzailerik ba al du?					X
4.- Merkatuan bere beharra al dago?				X	
5.- Baliabide (propioak eta kanpokoak) nahikoa al ditugu?					X
6.- Esperientzia al dugu produktuan edo sektorean?		X			
7.- Gure bezero potentzialak definituta al ditugu?					X
8.- Ilusioa al dugu proiektuarekin ekiteko?					X
9.- Lan gogor egiteko prest al gaude?					X
<b>PUNTUAZIO TOTALA</b>	<b>39</b>				

## **2. BALIOA**

### **BERRITZAILEA**

Animalia txip hau nobedade bat da animaliek betidanik tratu txarrak jasan dituztelako eta orain arte inoiz ezin izan delako ezer ez egin. Txip honen bidez tratu txarrak ekiditeko aukera izango dugu eta gaizkilea nor den jakitea baita.

Txip hauek material birziklatuekin eginak izan dira eta ez diete inongo minik eragiten erabiltzen dituzten animaliei.

### **PRESTAZIOAK**

Agerikoa da txipak betidanik ezagutu izan ditugula, baina txip honek dakarren berrikuntza sentsore lokalizatzaile bat baduela da. Horrez gain, txip honek dakarren beste berrikuntza bat tratu txarrak izanez gero poliziari abisatzen diola da.

### **LANA ERRAZTEA**

Produktuak poliziari lana eta jabeei bizitza erraztuko die batez ere animalia galtzen den kasuetan. Nolabait, animalia-dendei ere lana erraztuko die, ziurrago biziko dira eta lasai egongo dira jakinez animaliek seguru egondo direlako.

### **DISEINUA**

Mikrotxip honek kutxatila bat izango du zeinaren xedea mikrotxipa babestea izango da. Mikrotxipa kutxatilaren barnean egongo da.

### **MARKA/STATUSA**

Gure txip-a EVTSCAN marka ospetsuarekin erlazionatzen dugu, izan ere marka honek animaliak lokalizatzeko txip asko fabrikatzen ditu eta gure animalien txipak erlazio estua dauka horrekin. Hau da, gure txipa, animaliek tratu txarra ez jasotzeko ere lokalizatzaile bat ere eduki behar du, baina horrez gain, sentsore bat izan behar du egoera honen aurrean, poliziari jakinarazteko.

## **PREZIOA**

Interneten begiratu ditugu beste txip batzuen prezioak eta ezaugarriak eta haiekin alderatuta, gure produktua merkeagoa izango da. Izan ere gure saltokia nahiko handia izango da eta beraz produkzio gehiago izango dugu eta behar ditugun materialak lortzeko kopuru handian erosiko ditugunez, merkeagoa izango da gure produktua. Beraz, hau kontuan hartuta, eskaintzen dugun produktua 20€-koa izango da.

## **ARRISKUA MURRIZTEA**

Txip honek ez du animaliaaren osasuna kaltetzen, izan ere, animaliaaren omoplatoaren aldean jartzen da, larruazalaren azpian, kontuan izanda animaliaaren beste atal batean jartzen badugu txipa kalteak ekarriko dituela.

## **ESKURAGARRITASUNA**

Gure produktua mundu guztiak eskuragarria izateko web orri bat sortuko dugu txiparen informazio guztiarekin, gure bezeroak zalantzarik ez izateko. Baina zalantzak izatekotan atal bat egongo da (FAQ) komentarioak edo galderak egiteko eta honek argitzeko.

## **ERABILERRAZTASUNA**

Txip-a etortzen den kutxan azalpen orri bat egongo da argibideekin txip-a nola jartzen den azalduz. Horrez gain, gure web orrian beste atal bat egongo da tutorial bideo batekin txip-a jartzeko prozesua azalduz.